

IRAGARKIA

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkureak, 2012ko ekainaren 25ean egindako batzarrean, hasiera batean onartu eban Txosnen araudi barria, eta 30 eguneko epean jendaurrean egon eta gero, behin betiko onartu da, ondoren adierazoten dan moduan:

HERRIKO JAIK EDOTA BESTELAKO OSPAKIZUNETARAKO JARTZEN DIRAN TXOSNEN UDAL ARAUDIA

1. artikulua. Xedea

Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan eta beste honelako jaialdi berezietan, horretarako interesa aurreikusi eta adosten bada, profesionalak ez diren eta irabazi asmo bako eta jai eredu parte-hartzaileen aldeko saltoki herrikoiak ipini ahal izango dira. Horiek arautzea da Araudi honen xedea.

Araudi honeri dagokionez, udal erabakiak adostu egingo dira udalaren eta txosna taldeen artean.

2. artikulua. Berezitasun orokorrak

2.1. Bermeoko Udalak aurretiaz jarritako lekuetan bakarrik instalatuko dira honelako txosnak, jai gune nagusiaren inguruan, ahal den neurrian, leku irekietan edota jarduera mota honetarako baldintzak betetzen dituen lokaletan.

Txosnak jarriko diren eraikin, lokal edota instalazioek, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak bete beharko dituzte. Eta, orokorrean, bezeroei babesa bermatu eta inori gogaitasunik eragin ez. Kasu bakoitzarentzako eskagarriak diren araudiak beteko dira, egituren sendotasun baldintzei buruzkoak batez ere, suteen aurkako prebentzio eta babeste neurriak harturik eta garbitasun eta osasun baldintzak gorderik.

2.2. Leku irekian jartzeko diren txosnen kopurua eta neurriak txosnen taldeekaz adostuko da, kasu bakoitzean posibilitate geografikoa eta herriko jaiantzako ondoen datorren era kontuan hartuta.

2.3. Udalak ezarritako egunetan jarri eta kendu behar dira instalazioak. Jaiak amaitzen direnean, 24 orduko epe barruan kendu beharko da material guztia (48 ordu igandea bitartean izango balitz).

2.4. Leku irekian jarri behar diren txosnek Udalak ezarritako azalera okupatuko dute, Zerbitzu Batzordeagaz adostuta , eta instalazioaren sendotasuna, higiena, garbitzeko erraztasuna eta abarrerako material egokiaz eginda egongo dira.

3. artikulua. Txosnak jartzeko baldintzak

3.1. Txosna bat ipintzeko irabazi asmo bako elkarte edo taldea izan behar da, eta herrikoa. Txosna ipintzen duen bakoitzak, elkartearen jarduerako proiektuak izango ditu helburu, maila berean.

Taldeak Eusko Jaurlaritzako erregistroan egon beharko du, edo, behintzat, urtean zehar herrian proiektu bat garatu beharko du.

3.2. Txosnak jarri nahi dituzten elkarteek edo taldeek, Jai Batzordean parte hartu beharko dute modu aktiboan urte osoan. Gutxienez, elkarte edo taldeko ordezkari batek parte hartu beharko du. Ordezkari hori(ek) desberdinak izan daitezke. Txosna elkartetik badatoz, gutxienez bi, talde bakoitzetik badatoz, bat nahikoa izango da. Jai egitarau bateratu bat adostu behar da jai batzordean.

Jai batzordeak konpromisoa hartuko du batzarren deialdia elkarrengana iristen dela bermatzeko, eta batzarrak ahalik eta parte-hartzerik zabalena lortzeko moduan egiteko, asistentzia aukerak kontuan hartuta.

3.3. Txosnako beharrak borondate hutsarekin egingo dituzte elkartekideek edo aurkitu ahal dituzten laguntzaileek. Sekula ez da onartuko soldatapean ariko den profesionalik, ezta zeharkako ordainsaririk ere.

3.4. Azpiegituretan berez datozen marka eta iragarkiak estaltzea edo ez, borondatezko erabaki bat izango da, baina apaingarri komertzialik ez da onartuko. Era berean, dekorazioan, ez dira onartuko mezu edo irudi sexisterik, xenofoborik, baztertzailek, ezta indarkeria edo bortxakeria azaltzen dituenik.

4. artikulua. Baldintza sanitarioak

4.1. Instalazio horietan, ostalaritza establezimenduetan ohiz saltzen diren edari eta janariak saldu daitezke, apirilaren 29ko 852/2004 (CEko) Erreglamenduaren arabera (1), Araudi ¹ honetako I zenbakidun eranskinean ematen diren baldintza higieniko-sanitarioak bete beharko direlarik.

4.2. 18 urtetik beherakoei alkoholdun edaririk eta tabakorik saltzea zeharo debekatuta geratzen da, azaroaren 11ko 1988/15 Legeak ezarritakoaren arabera. Debeku hori iragartzen duen 42 x 30 zm.ko kartela gutxienez jarri beharko da leku ikusgarrian.

18 urtetik beherakoak txosna barruetan egotea eta lan egitea ere debekatuta dago.

4.3. Edalontziak berriz erabiltzekoak izan beharko dira.

¹ (CEko urriaren 16ko 1019/2008 eta martxoaren 11ko 219/2009 Arautegiek aldatuta

4.4. Bermeoko Udalagaz adostutako tokietan utzi beharko dira sastar eta hondakinak, ondo itxitako zorroetan.

4.5. Ahal den material guztia birziklatu beharko da, beirak, papera eta kartoia, plastikoa, olio...

4.6. Egun bakoitzaren ostean, txosna barrua garbitu eta desinfektatu beharko da, baita erabilitako tresna guztiak ere. Txosnaren ingurua ere garbituta geratu beharko da, Udal Zerbitzu Saileko beharginekin lankidetzan.

4.7. Ezin izango da inola ere, sastarririk ez hondakinik isuri portura.

4.8. Zamalanak, bezeroentzat zabalik ez dagoen orduetan egin beharko dira eta beti ere, eguerdiko hamabiak baino lehen.

4.9. Txosna gune bakoitzarentzako megafonia bakarra jarriko da eta udalak, Jai batzordearen bidez, izendatzen duen txosnaren ardurapean egongo da. Instalazio musikalek edota euren bolumenaren erabilera txarrak eragindako arazoan erantzukizuna izango du izendatutako txosnak.

4.10. Bozgorailuek eta instalazio musikalek egindako zarata maila mugatzeko, indar mugatzaile bat instalatu beharko da. Hiru metrotatik neurtuta, jarraian zehazten den zarata-mailarik ezin izango da gainditu:

- Hurreen dagoen etxebizitza 10etik 15 metro bitartean balego: 80 dezibelio A.
- 10 metro baino hurreago balego etxebizitzarik: 75 dB (A).
- 15 metrotik gorako bitartea balego hurreen dauden etxe-bizitzekin: 85 dB (A).

4.12. Musika instalazioa erabiliko da Jai batzordeagaz adostutako eran, egitarau komunari ondoen egokitutako moduan, jai ekintza edo aktibitateen arabera.

4.13. Musika jartzeko irizpideak honexek izango dira: Euskerazko abestiak eta herriko sorkuntzak priorizatuko dira, estilo-aniztasunaren alde egongo da, ordutegiaren eta momentuaren arabera musika lasaiagoa edo dantzagarriagoa jartzea. Era berean, ez dira onartuko mezu edo letra sexisterik, xenofoborik, baztertzailerik, ezta indarkeria edo bortxakeria azaltzen dituenik.

5. artikulua. Euskera irizpideak

Euskera irizpideak betetzeko konpromisoa hartzen dute txosnetako arduradunek, eta euskeraren aldeko jarrera izango dute.

5.1. Txosnetan ipiniko diren kartel, prezio zerrenda, pankarta, iragarki, ohar eta abar, euskeraz idatziko dira. Euskeraz ipiniko da ere errotulazioa paperontzi, kontainer edo antzekoetan, ezer jarri behar izatekotan.

5.2. Txosnek autopromoziorik egitekotan, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, euskeraz egingo da.

5.3. Aurreko puntuetan zehaztutako guztiak kalitatezko euskeraz ipiniko/egingo dira. Horretarako, hala behar izan ezker, udaleko Euskera sailaren laguntza teknikoa edukiko dute txosnek.

5.4. Euskerazko musikak gutxienez %50eko kuota izan beharko du.

5.5. Txosnetan publikoari edo bezeroei zerbitzua emango dieten pertsonak gaitasun nahikoa izango dute euskeraz egiteko, eta lehenengo berba euskeraz egingo dute beti.

5.6. Udalak euskera baino ez du erabiliko txosna ipiniko duen elkarte edo taldeekiko hartu-emanetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez du itzulpenik eskainiko.

6. artikulua.— Merkataritza eta segurtasun baldintzak

6.1. Janarien eta edarien salmentarako prezioak, adostuak izango direnak, ondo ikusten diren karteletan erakutsiko dira.

6.2. Udalak ezarritako orduan itxiko dira txosnak.

6.3. Jarduerarekin hasi orduko, ikuskizun publiko eta jolas-jarduerei buruzko uztailaren 4ko 17/1997 Legeak ezarritakoa erantzukizun zibil poliza bat izenpetu beharko dute txosnak jartzeko baimena duten talde edo elkarteek. Erantzukizun zibil poliza hori lortzeko, 100 pertsonetan estimatzen da txosna bakoitzaren aforoa.

6.4. Txosna modura jartzen diren lokalek, legeak ezarritako aforoa izango dute.

7. artikulua.— Eskariak

7.1. Jai batzordean parte hartzen duten txosnetako ordezkariak eskari bakar bat aurkeztuko dute Berh@z bulegoan (Ertzilla kalea 6-8) uztailaren 15a baino lehenago. Hurrengo datuak jarri beharko dira:

- Talde/elkarteen izenak
- Bakoitzaren ordezkarien datuak (izen-abizenak, telefono kontaktua, helbidea)

- Jarri nahi diren txosnen kopurua eta neurriak
- Bokatak egiten diren txosnatan, sukaldean ibiliko diren pertsona edo pertsonen janaria manipulatzeko karneten kopiak.

Jai patronaletatik kanpoko kasuetan, ekintza izan baino hilabete lehenago aurkeztu beharko da eskaria.

7.2. Era berean, irailaren 1a baino lehenago, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- 1.500 euroko fidantza jarri denaren egiaztagiria (txosna guztien artean).
- Erantzukizun Zibileko polizaren fotokopia eta ordainduta dagoen agiria (txosna bakoitzak berea).

Jai patronaletatik kanpoko kasuetan, ekintza izan baino aste bete lehenago aurkeztu beharko da eskaria.

7.3. Txosnen instalazioa egin ondoren eta beti zabaldu aurretik, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Jarritako instalazioak segurtasun, sendotasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen duen ziurtagiria (txosna bakoitzak berea)
- Argi indarraren ziurtagiria, Industria Ordezkaritzan bideratuta

Agiri guztiak ez aurkeztea edota ikuskapena egiten dutenean udalaren zerbitzu teknikoek edo osasunekoek kontrako txostena idazteak, baimena ukatzea ekarriko du, eta, ondorioz, ez da instalazioa zabaltzeko baimenik emango.

7.5. Eskariak eta dokumentazioa euskeraz aurkeztuko dira.

8. artikulua. Lege haustekak

8.1. Hutsegite arintzat hartuko dira:

- Araudi honetan jarritako hutsegite larri edo oso larritzat hartzen ez direnak
- Udalak eskatutakorik ez egitea, bai lizentzia ematerakoan bai geroago ere
- Jai batzordean parte ez hartzea hiru aldiz, beharrezko justifikazio barik
- Beirazko ontzietan edariak ematea

8.2. Hutsegite larritzat hartuko dira:

- Ezarritako ordutegitik kanpora instalazioa zabaltzea
- Zarata maila neurritz kanpo jartzea
- Udalaren inspezioak edo kontrolak galaraztea edo eragozpenak jartzea
- Hutsegite arin bi egitea

8.3. Hutsegite oso larritzat hartuko dira:

- Udal lizentzia barik instalazioa zabaltzea
- Kokatzeko gunea ez errespetatzea edo instalazioa jarri edo kentzeko mugaegunik ez gordetzea
- Ondasun publikoei edo zerbitzuei kalte larriak eragitea
- Hutsegite larri bi egitea
- Txosnaren erabilera beste bati ixtea, osorik edo zati batean
- Aurreikusitako edo baimendutako jardueratik kanpoko erabilera ematea instalazioari
- Neurri sanitarioak hartu ezagatik, herritarren osasuna arriskuan jartzea

9. artikulua. Zigorrak

9.1. Aurreko puntuan zehaztutako lege hausteei dagokien zigorrak Alkatetzak ezarriko ditu, horretarako izendatutako inktutoretak aurretiaz proposamena egin ondoren Legearen arabera eta interesatuari audientzia emanaz.

9.2. Hutsegite arinari dagokion zigorra, fidantzaren % 50a galtzea izango da.

9.3. Hutsegite larriaren zigorra jartzeak, fidantzaren %100a galtzea erakarriko du.

9.4. Hutsegite oso larrien zigorra jarri ezkerok:

- Fidantza osoa galduko da
- Lizentzia edo baimena iraungiko da
- Hiru urtetan txosnak jartzea debekatuko zaio

9.5. Behar izanez gero, beste erakunde batzuen aurrean tramitatuko dira lege hausteak.

Zigorrek alde batera itxita, udalak itxitako eta itzuli ez diren edota hondatuta itzuli diren materialen diru kopurua fidantzatik kendu dezake udalak eta, fidantza nahikoa ez balitz, erantzuleei hortik gorako kopuruak kobratzeko egokian diren bidezko legeak erabiliko ditu.

9.6. Eskatutako baldintzak ez betetzeak edo ezarritako osasun neurriak ez hartzeak arrisku larria eragiten duela uste izanez gero, aldi baterako eta kautelaz, akatsak zuzendu arte, instalazioa ixteko eskubidea izango du Udalak, egokiak liratekeen zigorrek jartzearen kalte barik.

I. ERANSKINA

**FERIA, JAIALDI EDO ALDI BATERAKO SALTOKIETAN JANARIAK EGIN
ETA SALTZEKO ARAU HIGIENIKO-SANITARIOAK**

1. artikulua.- Helburua eta aplikazio hedadura

Herriko jaietan eta kultura, kirol edo bestelako ospakizunetan, aldi txiki baten herritarrei janariak edota edariak saltzeko eta eskaintzeko jarri behar diren instalazioek bete behar duten baldintza higieniko-sanitarioak jartzea da eranskin honen helburua.

Autonomia Elkarte edo Estatu mailan, araudi honen goitik legoken beste edozein araudik ezarritako beste baldintzarik betetzea ere ez da uzten kanpoan.

1.2. Janariak eta edariak prestatu eta saltzen duten instalazioak kokatuko diren lekuetan ere, osasun eta garbitasun arloa izan beharko da kontuan:

- Ur edangarri nahikoa izatea.
- Hondakin solidoak eta likidoak bideratzeko sistemak izatea.
- Edozein zikinkerri, kutsadura edo kaltegarrietatik bitarte nahikora egon beharko da.
- Janarien garraiorako ibilgailuak bertaraino heltzeko erraztasuna.

2. artikulua.- Baldintza higieniko-sanitarioak

2.1. Janari Erabiltzailearen Agiria izan beharko du janariak prestatuko dituen pertsonak. Bere lanaren garapenean eta janarien prestaketan langileek izango duten jantzia egokia izango da eta horretarako bakarrik erabilia. Garbi egongo da bera, bere jantziak eta lanean erabiliko dituen tresnak.

2.2. Janariekin eta edariekin zerikusia duen jarduera guztia (bilketa barruan sartzen delarik), sapaিদun instalazioetan egin beharko da, eguraldiarengandik aterpetuta, argi nahikoaz eta bilketa eta erabiltze guneetara jenderik heltzen ez den lekuetan. Eguzkiaren izpiek ezin izango dituzte jo zuzenean elikagaiak. Aireatze sistema izango du, baita keak ateratzeko sistema egokia ere beharrezkoa denean. Edozein zikinkerri, kutsadura edo kaltegarritik urrun egongo dira.

2.3. Tresneria eta pertsonak garbitzeko garbilekuetara doan ur edangarri korronte nahikoa izango da lan guneetan janariak prestatu ahal izateko. Eskuen garbilekuak xaboi likidoa, paperezko eskuoihala eta atzazal eskubila izango daitu. Ahal izanda, estolderiari konektatuko zaizkio hustubideak.

AR-E 21/02-12

2.4. Kokapenari garrantzi handia eman beharko zaio eta jaietan janariak eta edariak saltzeko gaitzen diren lonjek araudia(aireatze sistema egokia, keen irazpena beharrezkoa balitz, etab.) betetzen duten aztertu beharko da.

2.5. Aipatu den jardueraren lurzorua erraz garbitzekoa izan beharko da eta bertan hondakin solido ez likidorik ez metatzeko ahaleginak egin beharko dira. Lurzoruak instalazio egun guztietan mantendu beharko ditu baldintza hauek.

2.6. Janariak erabiltzen diren edota ukitzen dituzten azalera material leun, geldi, xurgagaitz, erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango dira.

2.7. Edalontziak, platerak eta jendearentzako mahai-tresnak, erabilera bakarrekokoak izango dira, botatzekoak. Zerbitzuaren behar izanak hartzeko gaitasun nahikodun ontzi-garbigailua daukan lokaletan bakarrik utziko da edalontzi, plater eta mahai-tresna erabilgarriak izatea.

2.8. Behar dituzten elikagaiak mantentzeko edukiera nahikoa daukan izozkailua eduki beharko da. Aparailu hauen hotz-beroa aldizka kontrolatu beharko da termometrorik badute. 0° C eta 4° C bitarteko hotz-beroa izango dute hoztutako elikagaientzat eta 18° zero azpitik izoztuentzat.

2.9. Biltegi guneetan, kapazitate nahikodun hozkailuak, erabiltze aretoak, lan azalera, etab. egon beharko dira, garatu beharreko lanaren kopurua kontuan izanda.

2.10. Botatzekoa den zorroaz baldeak jarrita izatea eskatzen du sastarrak eta hondakinak sortzen dituen edozein jardueraren garapenak. Zorroak betetzen direnean, ondo itxiko dira eta ahal denik arinen aterako dira. Establezimenduen kanpoko aldean paperontziak jarriko dira erabilera bakarrekoko plater, edalontzi, etab. bertara jaurtitzeko.

2.11. Bilketa, erabiltze edo prestatze prozesu guztietan elikagaiek ezin izango dute inolaz ere beherik ukitu.

2.12. Beira-arasa, ontzi edo azalez babestuta egongo dira jendaurrean jarritako janariak.

2.13. Baimendutako establezimenduengandik etorriko dira txosnek hartzen dituzten lehengai edo janari prestatuak. Enbasean daudenak etiketa bidez egongo dira identifikatuta edo enbasatu gabekoak faktura edo beste agiriren baten bidez. Higiene baldintza egokietan garraiatuak izan direla ere egiaztatu beharko da, hotz katea gorderik beharrezkoa duten lehengaien kasuan.

2.14. Beharrezkoa den bakoitzean eta lan egun bakoitzaren ondoren beti ere, areto guztia eta erabilitako tresnak garbitu eta desinfektatuko dira,

elikagaiak behar den moduan gorde eta gero. Instalazio guztia garbi eta ordena egoera egokian mantentzea zainduko du establezimenduko arduradunak.

2.15. Honako produktu hauek prestatzea baimenduko da:

- Txorizo, txistorra, buzkantz, hirugiharre, okela errea, solomo adobatua, sakotea, hestebete umatua, gaztai umatu edo erdiumatuak, hegaluze, atun eta sardina kontserbetako ogitartekoak edo pintxoak.

- Hanburgesak eta saltxitxak.

- Piper frijituak.

- Ondo mamitutako tortillak, egin eta berehala jatekoak edota baimendutako industrietatik ekarritakoak baldintza egokietan garraiatuta.

- Edari nahasketak egiten direnean, egunero prestatuko dira.

2.16. Aipatutako janari prestatuetatik kanpo, alperrik galtzen ez diren beste elikagaien(patata frijituak, fruitu lehorrak, etab.) salmenta ere onartzen da, behar den moduan enbasatuta eta etiketatuta egon beharko direlarik.

3. artikulua.- Ore frijituak (txurreria) egiteko eta saltzeko tokien baldintza higieniko-sanitarioak

3.1. Janari Erabiltzailearen Agiria izan beharko du janariak prestatuko dituen pertsonak. Bere lanaren garapenean eta janarien prestatetan langileek izango duten jantzia egokia izango da eta horretarako bakarrik erabilia. Garbi egongo da bera, bere jantziak eta lanean erabiliko dituen tresnak.

3.2. Janariekin eta edariekin zerikusia daukan jarduera guztia (bilketa barruan sartzen delarik), sapaিদun instalazioetan egin beharko da, eguraldiarengandik aterpetuta, argi nahikoaz eta bilketa eta erabiltze guneeetara jenderik heltzen ez den lekuetan. Eguzkiaren izpiek ezin izango dituzte jo zuzenean elikagaiak. Aireatze sistema izango du, baita keak ateratzeko sistema egokia ere, beharrezkoa denean. Edozein zikinkeria, kutsadura edo kaltegarritik urrun egongo dira.

3.3. Tresneria eta pertsonak garbitzeko garbilekueetara doan ur edangarri korrante nahikoa izango da lan guneeetan janariak prestatu ahal izateko. Eskuen garbilekuak xaboi likidoa, paperezko eskuoihala eta atzazal eskubila izango ditu. Ahal izanda, estolderia sareari konektatuko zaizkio hustubideak.

3.4. Aipatu den jardueraren lurzorua erraz garbitzekoa izan beharko da eta bertan hondakin solidorik ez likidorik ez metatzeko ahaleginak egin beharko dira. Lurzoruak instalazio egun guztietan mantendu beharko ditu baldintza hauek.

3.5. Janariak erabiltzen diren edota ukitzen dituzten azalerak material leun, geldi, xurgagaitz, erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango dira.

3.6. Biltegi guneetan, kapazitate nahikodun hozkailuak, erabiltze aretoak, lan azalerak, etab. egon beharko dira, garatu beharreko lanaren kopurua kontutan izanda.

3.7. Botatzekoa den zorroaz baldeak jarrita izatea eskatzen du sastarrak eta hondakinak sortzen dituen edozein jardueraren garapenak. Zorroak betetzen direnean, ondo itxiko dira eta ahal denik arinen aterako dira. Establezimenduen kanpoko paperontziak jarriko dira erabilera bakarreko plater, edalontzi, etab. bertara jaurtitzeko.

3.8. Bilketa, erabiltze edo prestatze prozesu guztietan elikagaiak ezin izango dute inolaz ere beherik ukitu.

3.9. Beira-arasa, ontzi edo azalez babestuta egongo dira jendaurrean jarritako janariak.

3.10. Baimendutako establezimenduengandik etorriko dira txosnek hartzen dituzten lehengai edo janari prestatuak. Enbasean daudenak etiketa bidez egongo dira identifikatuta eta enbasatu gabekoak faktura edo beste agiriren baten bidez. Higiene baldintza egokietan garraiatuak izan direla ere, egiaztatu beharko da, hotz kaltea gorderik beharrezkoa duten lehengaien kasuan.

3.11. Beharrezkoa den bakoitzean eta lan egun bakoitzaren ondoren beti ere, areto guztia eta erabilitako tresnak garbitu eta desinfektatuko dira, elikagaiak behar den moduan gorde eta gero. Instalazio guztia garbi eta ordena egoera egokian mantentzea zainduko du beti establezimenduko arduradunak.

3.12. Bere barietate eta aurkezpen mota ezberdinetan ore frijituak egitea baimentzen da (txurroak, kruxpetak, etab.) berehala jateko, ur edangarri, irin eta gatza nahasturik egindakoak izango dira. Baimendutako gasifikanteak erantsi leitzateke, edota erabilera hauetarako baimendutako landare-olio jangarriarekin frijitu.

Egindako produktuak birfrijitzea debekatuta dago.

3.13. Aipatutako produktu prestatuez gain, alperrik galtzen ez diren elikagaien (patata frijituak, fruitu lehorrak, etab.) salmenta ere onartzen da, ondo enbasatu eta etiketatuta egon beharko direlarik.

4. artikulua.- Janariak prestatu barik, edariak saltzen dituzten establezimenduen baldintza higieniko-sanitario orokorrak

4.1. Janariekin eta edariekin zerikusia daukan jarduera guztia (bilketa barruan sartzen delarik), sapaিদun instalazioetan egin beharko da,

eguraldiarengandik aterpetuta, argi nahikoaz eta bilketa eta erabiltze guneetara jenderik heltzen ez den lekuetan. Eguzkiaren izpiek ezin izango dituzte jo zuzenean elikagaiak. Aireatze sistema izango du, baita keak ateratzeko sistema egokia ere, beharrezkoa denean. Edozein zikinkeria, kutsadura edo kaltegarritik urrun egongo dira.

4.2. Aipatu den jardueraren lurzorua erraz garbitzekoa izan beharko da eta bertan hondakin solidorik ez likidorik ez metatzeko ahaleginak egin beharko dira. Lurzoruak instalazio egun guztietan mantendu beharko ditu baldintza hauek.

4.3. Biltegi guneetan, kapazitate nahikodun hozkailuak, erabiltze aretoak, lan azalerak, etab. egon beharko dira, garatu beharreko lanaren kopurua kontuan izanda.

4.4. Bilketa, erabiltze edo prestatze prozesu guztietan elikagaiek ezin izango dute inolaz ere beherik ukitu.

4.5. Botatzekoa den zorroaz baldeak jarrita izatea eskatzen du sastarrak eta hondakinak sortzen dituen edozein jardueraren garapenak. Zorroak betetzen direnean, ondo itxiko dira eta ahal denik arinen aterako dira. Establezimenduen kanpoko aldean paperontziak jarriko dira erabilera bakarrekoko plater, edalontzi, etab. bertara jaurtitzeko.

4.6. Beharrezkoa den bakoitzean eta lan egun bakoitzaren ondoren beti ere, areto guztia eta erabilitako tresnak garbitu eta desinfektatuko dira, elikagaiak behar den moduan gorde eta gero. Instalazio guztia garbi eta ordena egoera egokian mantentzea zainduko du beti establezimenduko arduradunak.

4.7. Alperrik galtzen ez diren elikagaien (patata frijituak, fruitu lehorrak, etab.) salmenta ere onartzen da, ondo enbasatu eta etiketatuta egon beharko direlarik.

Bermeon, 2012ko irailaren 13an
Alkatea
Idurre Bideguren Gabantxo